

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UR PARTZUERGEOA

Behin betiko onespena ematea Iruña Okako Ur Partzuergoaren estatutuen aldaketari

Iruña Okako Ur Partzuergoaren Batzarrak, 2026ko ekainaren 17an balio osoz egindako ezohiko bilkuran, aho batez erabaki zuen Iruña Okako Ur Partzuergoaren Estatutuen 4. eta 20. artikulua aldatzea.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betetzeko, bilduriko guztiek aho batez adostu dute espedientea jendaurrean jarriko dela hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, idatziz.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkeztu ez denez, osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin.

Langraiz Oka, 2026ko irailaren 10a

Partzuergoko lehendakaria

JESÚS MARÍA JIMÉNEZ SUSO

IRUÑA OKAKO UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK

1. KAPITULUA. IZAERA ETA XEDEAK

1. artikulua. Partzuergoa eratzea

1. Iruña Okako Udala, Langraiz Okako administrazio batzarrak, Mandaita, Olabarri, Trespuentes eta Billoda, eta Arabako Foru Aldundia, indarrean dagoen legeriak aitortzen dion ahalmenaren arabera, partzuergo bezala eratzen dira beren eskumeneko azpiegiturak eta zerbitzuak elkarte moduan ezartzeko eta ustiatzeko, estatutu hauetako 6. artikulua adierazten dituen helburuak betetzearren.

2. Kide berriak onartzea eta horiek bereiztea estatutuetan jarritakoaren arabera egingo da.

2. artikulua. Izena eta sozietatearen egoitza

1. Partzuergoaren izena "Iruña Okako Ur Partzuergoa" da.

2. Sozietatearen egoitza: Araba kalea 7, 01230 Ionja, Langraiz Oka (Araba).

3. artikulua. Nortasun eta gaitasun juridikoa

Partzuergoa zuzenbide publikoko erakundea da, asoziatiboa, boluntarioa, lege nortasun propioa eta bereizia duena eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasun osoa duena; beraz, ahalmena izango du era guztietako ondasunak erosi, eduki, aldarrikatu, trukatu, kargatu eta besterentzeko, kontratuak egiteko, estatutu hauetan ezartzen den zerbitzu publikoa eta gerora bere eskumenekotzat hartzen dituen zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko, hitzemandako, ezarritako errekursoak aurkezteko, legeetan jasota dauden ekintzak egiteko, langileak kontratatzeko eta indarreko legeriaren arabera ematen zaizkion gainerako ahalmenak baliatzeko.

Partzuergoak partzuergoko kide diren udalak eta kontzejuak ordezkatzeko dituzten haien helburuak lortzeko, eta horretarako behar diren ondasun eta eskubideen titularra izango da, baldin eta altako sareari eragiten badiote.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 120. eta 124. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz, honako partzuergo hau Iruña Okako Udalari atxikitzen zaio lege ezarritako ondorioetarako.

Atxikimenduan aldaketarik egoten bada, arrazoiak edozein dela ere, partzuergoaren estatutuak aldatu egin beharko dira, gehienez ere, sei hilabeteko epean, atxikimendua aldatu zeneko aurrekontu ekitaldiaren hurrengo ekitaldia hasten denetik aurrera.

4. artikulua. Partzuergoaren lurralde eremua eta iraupena

1. Partzuergoaren lurralde eremuak Iruña Okako udalerria hartzen du, eta batzarrak hala erabakitzen duenean, udalerririk kanpo ere egin ahal izango ditu jarduketak, uraren ziklo integralarekin lotutako jarduerak egiteko bada.

2. Partzuergoaren denbora muga jakinik gabe eratu da eta helburuek dirauten bitartean iraungo du, ondoko bi kasuetan izan ezik: ezinezkoa bada helburu horiek lortzeko Partzuergoaren jarduerak eta baliabideak aplikatzea; Partzuergoaren desegin beharra dakarren bestelako aparteko gorabeheraren bat sortzen bada.

5. artikulua. Araubide juridikoa

1. Partzuergoaren antolaketa, funtzionamendua eta lege araubideak estatutu hauetan eta Batzar Orokorrak berak hartutako erabakietan eta urriaren 1eko 40/2015 Legean eta, osagarri gisa, Udal Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985eko Legean, hura garatzen dituzten autonomia erkidegoko xedapenetan, toki erakundeei aplikatzen zaizkien gainerako lege eta arau xedapenetan eta Uren Legean eta arloa arautzen duten beste xedapen sektorialetan xedatutakoa beteko dute.

2. Batzar orokorraren erabakiek eta lehendakariak hartutakoek administrazio bidea amaituko dute.

3. Partzuergoko organoen erabakiak eta ebazpenak berehala betearazi beharrekoak izango dira, goragokoen onarpena edo baimena behar denean izan ezik.

6. artikulua. Partzuergoaren xedek

1. Partzuergoaren xede dira ur hornikuntzaren eta lehen mailako sarearen azpiegiturak ezarri eta ustiatzea eta egoki diren zerbitzuak ematea; hori guztia, behar bezalako baldintzetan eta indarreko arautegiaren arabera.

2. Hala erabakiz gero, partzuergoak ur zikloaren beste fase batzuetara zabaldu ditzake bere helburuak, erakundek hala eskatzen badute eta aldez aurretik haiekin hitzarmena sinatzen bada.

7. artikulua. Ahalmenak

Bere helburuak lortzeko, partzuergoak honakoak egin ditzake:

a) Estatuko Administrazioari, Autonomia Erkidegokoari eta foru administrazioari eskatzea eta haiengandik eskuratzea indarrean dagoen legeriak eskaintzen dituen laguntza ekonomikoak eta teknikoak, bai eta haiekin hitzartutako beste batzuk ere.

b) Partzuergoak kontrolatzen duen lehen mailako sarea urez hornitzeko beharrezkoak diren emakidak eta baimenak eskatzea eta lortzea. Hori ez da eragozpen partzuergoko kideek beste baimen batzuk eskuratu ahal izateko.

c) Zerbitzuak ezartzeko eta ustiatzeko beharrezko diren inbertsioak finantzatzeko eragiketarik egitea.

d) Proiektuak prestatzea eta azpiegiturak ezartzeko eta mantentzeko obrak egitea, zeini dagokion planaren arabera.

e) Lehen mailako sarea hornitzeko zerbitzuak kudeatzea.

f) Lehen mailako sarea urez hornitzeko zerbitzuen tarifak ezartzea. Partzuergoko kide diren erakundeek hala eskatu ondoren, partzuergoak tarifen kobranta kudeatuko du.

g) Toki sareetako ura banatzeko aholkularitza teknikoa ematea, administrazio batzarrek hala eskatzen badute eta partzuergoak onartzen badu.

h) Aurreko artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren ondorioz beharrezkoak diren jardun guztiak egitea.

i) Partzuergoaren xede diren zerbitzuak nola eskaini arautuko duten ordenantzak edo arau-tegiak onestea.

8. artikulua. Kudeatzeko modua

Partzuergoak zerbitzu horiek egin ahal izango ditu, bere burua antolatze duen ahalmena baliatuz, toki araubidearen legeriak zerbitzu publikoetarako ezartzen dituen kudeaketa moduetako edozein aukeratuta.

9. artikulua. Zerbitzuak ematean lankidetzan jardutea

Partzuergoak berak, kudeaketarako sortu ahal den erakundeak (edo erakundeek), eta partzuergoko kide diren erakunde publikoek, euren lehendakariaren, alkateen, erregidoreen eta ordezkarien bidez, batera jardungo dute zerbitzu hobeak eskaintze aldera. Horretarako, beharrezko informazioa eta laguntza emango diote elkarri.

10. artikulua. Hirigintza alorrean lankidetzan aritzea

1. Partzuergoak berak eta partzuergoko kide diren erakundeek hitzematzen dute elkarrekin lanean arituko direla, denei eragiten dieten hirigintzako gaiei dagokienez. Horretarako, administrazio batzarrek eta udalak partzuergoari galdetu beharko diote, hari eragin ahal dioten gaien gaineko planeamenduko tresnak prestatu edo aldatu nahi dituztenean.

2. Partzuergoko kide diren udalek, urbanizazio proiektuak onartu aurretik, eta beti eraikitze baimenak eman aurretik, partzuergoari proiektu horiek bere eskumeneko zerbitzuetan duten eraginari buruzko txostena eskatu beharko diote ezinbestez. Txostenak dioena ez da loteslea izango.

11. artikulua. Udal ordenantzak egokitzea

Partzuergoko kide diren erakundeek partzuergoaren eskumeneko gaien gainean dituzten ordenantza guztiak partzuergoak berak onartu dituen ordenantzetara eta arau teknikoetara egokitu beharko dira, erakunde bakoitzaren ezaugarri bereziak gorabehera. Ondorio horietarako, erakunde horiek beren ordenantzetan txertatuko dituzte partzuergoak hartzen dituen erabakiak, betiere goiko sarearekin lotutakoak.

2. KAPITULUA. GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

12. artikulua. Partzuergoaren organoak

1. Partzuergoaren gobernu eta administrazioa honako organo hauen esku egongo da:

Batzar orokorra.

Lehendakaria.

Lehendakariordea.

2. Partzuergoa behar bezala kudeatze aldera beharrezkoa bada horren ardura izango duen organo bat sortzea, bertako zuzendari-kudeatzaileak ere zuzendaritza organoaren izaera izango du.

13. artikulua. Batzar Orokorra

1. Partzuergoaren organo gorena Batzar Orokorra da. Batzar Orokorraren eskumenak estatutu hauetan ezartzen direnak eta ordenamendu juridikoan onartzen diren gainerako guztiak dira.

2. Batzar orokorra partzuergoko erakunde bakoitzeko 7 kidek osatzen dute, eta honako boto hauek dagozkie:

a) Administrazio batzar bakoitzari boto bat dagokio, eta Iruña Okako Udalari, berriz, 2 boto. Boto horietako bat partzuergoko gainerako erakundeek aho batez onartzen dutenean soilik erabili ahal izango da.

b) Arabako Foru Aldundiari ordezkari bat dagokio eta boto 1.

14. artikulua. Partzuergoko erakundearen ordezkariak hautatzea eta ordezkari karguen iraupena

1. Partzuergoko kide diren toki erakundeak ordezkatzeko dituzten kideak udalbatzen osoko bilkurek eta kontzejuek aukeratuko dituzte, haien arautegiaren arabera. Gainera, udalek ordezkari ordezkoak izendatuko dituzte, titularrek kargua galtzen dutenerako, edo titularrak gaixorik edo kanpoan daudenerako.

2. Aldundiko ordezkaria erakunde horrek izendatuko du bere kideen artean, erakundearen araudiari jarraituz. Aldundiak, gainera, bere ordezkari ordezkoak izendatuko ditu aurreko zenbakian adierazitako kasuetarako.

3. Kideen kargua lau urterako da eta, hala badagokio, korporazioa berritzen denean iraungiko da. Halako kasuetan, partzuergoan dauzkan ordezkariak, bitartean, erakundearen organo eskudunak haien ordezkari ordezkoak izendatu eta partzuergoaren artezkaritza organoak eratu arte jarraituko dute. Ordezkaria izendatzearekin batera, haren ordezkari bat ere izendatuko da, baina partzuergoko gobernu- eta administrazio organoetan erakunde bakoitzeko ordezkari batek bakarrik jardun ahal izango du.

4. Partzuergoko batzar berria bi hilabete igaro baino lehen eratuko da, udalak, Arabako Foru Aldundia eta administrazio batzarrak balio osoz eratzen diren egunetik aurrera.

15. artikulua. Batzar nagusiaren bilkurak

1. Batzar Orokorraren bilkurak bi motatakoak izan daitezke: ohikoak eta bereziak.

2. Batzarra hiru aldiz bilduko da, urtean behin, lauhilekoan, lehendakariak deitutako ohiko bilkuran.

3. Halaber, egokitzen jotzen diren bilkura bereziak egin ahal izango ditu, lehendakariaren ekimenez edo Batzar Orokorreko legezko kide kopuruaren gutxienez laurdenaren idatzizko eskariz.

16. artikulua. Deialdia eta gai zerrenda

1. Batzarraren bilkura bakoitzaren deia behar besteko aurrerapenez egin behar da. Bilkurarako deia egiten denetik bilkuraren egunera arte, gutxienez bi egun baliodun igaro beharko dira, aparteko bilkuren kasuan izan ezik (horrelakoetan, 24 orduko aurrerapenez egingo da), ordezkari guztiek bileran landu behar diren gaiak aztertu ahal izan ditzaten.

Deialdian, bilkura noiz, zer ordutan eta non izango den adieraziko da, bai lehenengo deialdian bai bigarrenengan, bai eta gai zerrenda ere. Halaber, ohartaraziko da espedienteak eta dokumentuak ordezkariaren eskura egongo direla deialdia igorri den egunetik aurrera.

2. Deialdia, gai zerrenda eta onartu beharreko aurreko bilkuretako akten zirriborroak Batzar orokorreko kideei jakinaraziko zaizkie, Udalaren eta Partzuergoko erakundeetako gainerako organoen bidez, haiek beren ordezkariari helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3. Deialdian, aztertuko diren gaien zerrenda aipatuko da, eta ohartaraziko da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deialdia igorri den egunetik aurrera.

4. Ezin izango da gai zerrendan berariaz jaso ez den erabakirik hartu, salbu eta presako kasuetan, baldin eta batzarrak alde aurretik aho batez hala erabakitzen badu, onesteko gehiengo osoa edo kualifikatua behar duten gaiei buruz denean, edo kideen gehiengo osoak presakotzat jotzen duenean, onesteko gehiengo soilak behar denean.

17. artikulua. Kide anitzeko organoaren funtzionamendua

1. Batzarraren bilkurak baliozkoak izan daitezen, gutxienez hitza eta botoa duten kideen erdia eta bat gehiago izan beharko dira bertan. Quorum hori bilkura guztian zehar mantendu beharko da. Nolanahi ere, beharrezkoa da batzarraren lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

2. Quorumik ez dagoelako ezin bada batzarra egin, balio osoz eratutzat joko da bigarren deialdian, ordu erdi beranduago, baldin eta lehendakaria eta idazkaria bertan badira eta hurrengo artikuluan ezarritako quoruma errespetatzen bada.

3. Oro har, batzar orokorraren erabakiak botoa emateko eskubidea izan eta bilkurara bertaratu diren kideen gehiengo soilaz onartuko dira. Estatutu hauetan zehaztutako kasuetan, botoa emateko eskubidea duten Batzar Orokorreko legezko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da erabakia hartzeko. 23. artikuluko hirugarren paragrafoa aldatzeko, nahitaezkoa izango da Arabako Foru Aldundiaren eta Iruña Okako Udalaren berariazko aldeko botoa idatziz eskuratzea.

4. Estatutu hauetan aipatzen ez diren kasuetan, toki erakundearen kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz toki arauetan xedatutakoa aplikatuko da batzar orokorrean.

18. artikulua. Batzar Orokorren eskumenak

1. Batzarraren eskumenak honako hauek dira:

- a) Partzuergoaren estatutuak aldatzea.
- b) Partzuergoa desegitea.
- c) Kideak onartzea eta bereiztea.
- d) Ohiko bilkuren aldizkakotasuna aldatzea.
- e) Barne arautegiak eta ordenantzak onestea, baita horien aldaketak ere.
- f) Hornikuntza zerbitzuak ematearekin lotutako planak, jarduera programak eta arautegiak onestea.
- g) Lehen mailako sarea hornitzeko zerbitzuak kudeatzeko modua onestea.
- h) Obrak eta zerbitzuak kontratatzeko baldintzen agiriak onestea, bai eta kontratu horien behin betiko esleipena ere.
- i) Obra proiektuak onestea.
- j) Bere aurrekontua eta betearazte oinarriak onestea eta aldatzea, eta kontuak onestea.
- k) Goiko sareari dagozkion ordainarazpenak eta tarifak ezartzea eta kobratzea, eta horien zerga ordenantzak onetsi eta aldatzea.
- l) Zorpetze muga eta hainbat urtetarako gastuen konpromisoak adieraztea.
- m) Urtero, aurrekontua onesteaz batera erakundearen lanpostu zerrenda onestea. Zerrenda horretan lan kontratupeko langileen eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak agertuko dira.

n) Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onestea, eta ordainsari osagarrien zenbateko osoa finkatzea, indarrean dauden legeek ezarritako gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak errespetatuz.

o) Ondarea besterentzea eta eskuratzea.

p) Beste toki erakunde batzuekin eta gainerako herri administrazioekin dauden eskumen auziak azaltzea.

q) Administrazio egintzak eta egintza judizialak gauzatzea, eta partzuergoaren aurka hasitako prozeduretan partzuergoaren alde agertzea.

r) Partzuergoko kide diren erakundeek edo beste toki erakunde edo administrazio publiko batzuek eskuordetutako eskumenak onartzea.

s) Partzuergokoak ez diren erakundeei zerbitzuak ematea onestea, alderdi batek eskatuta.

t) Zehapen arautegia onestea.

u) Estatutu hauetan ezarritako beste guztiak.

2. a), b), c), f), k), j), m), s) eta t) apartatuetan adierazitako gaiei buruzko erabakiak hartzeko, botoa emateko eskubidea duten batzar orokorreko legezko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da, salbu eta 23. artikuluko 3. paragrafoa aldatzeko denean, izan ere, orduan, nahitaezkoa izango da Arabako Foru Aldundiaren eta Iruña Okako Udalaren berariazko aldeko botoa idatziz eskuratzea.

3. Batzar orokorrak zuzendaritzako gainerako organoen esku utzi ahal izango ditu quorum kualifikatuaren beharrik ez duten gaiak.

19. artikulua. Lehendakaria eta lehendakariordea

1. Batzarrak hautatuko ditu, bertako kide direnen artetik, zuzeneko botazio bidez.

2. Batzarreko kide ordezkari guztiak dira hautagai. Batzar Orokorreko kide bakoitzak hautagai bati bakarrik emango dio botoa. Boto paperean hautagaiaren izen-abizenak idatzi beharko dira.

3. Boto gehien lortu duen hautagaia lehendakari izendatuko da, baldin eta boto kopurua botoa emateko eskubidea duten batzar orokorreko legezko kideen gehiengo osoarena bada.

Legez eskatzen den gehiengo lortzen ez bada, berriro egingo da bozketa, eta boto gehien lortzen duen hautagaia izendatuko da lehendakari. Bigarren botazioan berdinketa egonez gero, boto kopuru bera jaso duten hautagaien artetik zaharrena izendatuko da.

4. Boto kopuruetan bigarren lekuan geratu den hautagaia lehendakariorde izendatuko da. Pertsona horrek ezin du izan lehendakari hautatu den pertsonaren erakunde bereko ordezkaria.

Berdinketa egonez gero, boto kopuru bera jaso duten hautagaien artetik zaharrena izendatuko da.

20. artikulua. Lehendakariaren eskumenak

1. Lehendakariaren eskumenak honako hauek dira:

a) Batzar Orokorraren bilkuretara deitzea, bilkuretan buru aritzea, bilkurei amaiera ematea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak kalitateko botoarekin ebaztea.

b) Batzar orokorraren erabakiak betearaztea.

c) Partzuergoaren ordezkari ofiziala izatea; eskriturak, dokumentuak eta polizak izenpetzea; eta, behar denean, partzuergoa ordezkatu eta defendatzen duten prokuradoreei eta abokatuiei botereak esleitzea.

d) Partzuergoari esleitutako obrak eta zerbitzuak zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea, horretarako xedapen egokiak onartuta.

e) Dagozkion eskumenen barruan, gastuak bideratzea, partzuergoaren batzarra aurretik adieraziak; ordainketak agintzea; eta kontuak ematea.

f) Partzuergoko langile guztien buru nagusia izatea. Ezarritako probak gainditzeko dituzten lan kontratupeko eta behin-behineko langileak izendatzea.

g) Berez, bere ardurapean eta batzar orokorrak emandako jarraibideen baitan, partzuergoko gaien gainean beharrezkoak diren premiazko neurriak hartzea; eta egiten den lehenengo bilkuran batzar orokorrari horien berri ematea.

h) Administrazio egintzak eta egintza judizialak egitea, premiazkoak izanez gero, eta egiten den lehenengo bilkuran batzar orokorrari horien berri ematea.

i) Zerbitzuen kostuari eta haien etekinaren balioztatzeari buruzko azterlanak egitea, gero batzar orokorrak onar ditzan.

j) Kontuhartzailearen laguntzarekin aurrekontuen proiektuak prestatzea, gero batzarrak onar ditzan.

k) Arduradun teknikoa gonbidatzea/deitzea partzuergoak egiten dituen batzarretara joateko, partzuergoko kideek egiten dizkioten gai tekniko guztiei erantzun ahal izateko.

2. Lehendakariak bere eskudantziak eskuordetu ahal izango ditu, a), f), g) eta h) apartatueta adierazitakoak izan ezik.

21. artikulua. Lehendakariordearen eskumenak

Lehendakariordeari dagokio lehendakariaren eginkizun guztietan jardutea hura kanpoan, gaixorik edo ezinduta dagoenean, edo lehendakari kargua hutsik dagoenean.

22. artikulua. Zuzendari kudeatzailea

Zuzendari kudeatzaileak, izendatuz gero, batzarrak edo lehendakariak eskuordetzen dizkioten ahalmenak izango ditu.

3. KAPITULUA. AURREKONTU ETA KONTABILITATEKO ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA EKONOMIA ETA FINANTZEN ETA ONDAREAREN KONTROLA

23. artikulua. Baliabide ekonomikoak

1. Partzuergoaren ogasuna ondoko baliabideek eratuko dute:

a) Hornikuntza zerbitzuak ustiatzeari darizkion era guztietako diru sarrerak.

b) Partzuergoko kide diren erakundeek egindako ekarpenak.

c) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen dituen dirulaguntza edo emariak.

d) Kreditu eragiketen ziozko sarrerak.

e) Ondareak ekarritako diru sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainontzeko guztiak.

f) Legeak aitortzen dion beste edozein.

2. Lehenengo paragrafoan adierazi diren diru sarrerak nahikoak ez badira, zerbitzua jasotzen duten administrazio batzarrak ekarpenak egitera behartu ahal izango dira. Horretarako, batzarraren erabaki bat beharko da, estatutu hauen 18.2 artikuluan adierazitako quorumarekin hartua. Halakoetan, zerbitzua jasotzen duten administrazio batzarren ekarpenak bakoitzak duen kontsumoaren proportziozkoak izango dira, ekarpena egiaztatu behar den urtearen aurreko urteko kontsumoa kontuan hartuta.

3. Arabako Foru Aldundiak eta Iruña Okako Udalak ez dute sekula parte hartuko instalazioak onik zaintzeko eta mantentzeko egin beharreko gastu arruntetan. Paragrafo hau aldatzeko, nahitaezkoa izango da bi erakunde horien berariazko aldeko botoa idatziz eskuratzea.

4. Administrazio publikoak, Partzuergoko kide direnak, ez dira behartuta egongo ondare funtserako edo finantzaketarako ekarpena, ekitaldi horretarako hitz eman dutena, egitera Partzuergoko beste kideren batek aurreko ekitaldietan egin behar zituen diruzko ekarpen guztiak egin ez baditu.

Partzuergoaren jarduerak mugatuta geratuko dira Partzuergoko erakundeek finantzaketa edo beste edozein motatako konpromisoak beteko ez balituzte. Era berean, ezingo da aurrekontuetan jasotako jarduerarik egin lehenago Partzuergoko erakundeek finantzatu eta ordaintzea hitz emandako kopuruak ziurtatuta ez baleude.

23 bis artikulua. Aurrekontu eta kontabilitate araubidea eta ekonomia eta finantzen eta onda rearen kontrola

Aurrekontu eta kontabilitate araubideari, ekonomia eta finantzen eta ondarearen kontrolari, nahiz ondare arauetarako dagokienez, partzuergoa atxikita dagoen administrazio publikoari dagokionaren mende dago, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan xedatutakoaren mende ere egonik.

Partzuergoko administrazioek eman beharreko finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira estatutuen edo hitzarmenen arabera dauden konpromisoak nahiz finantzaketa erreala. Horretarako, egindako ekarpen guztien ordainketak aztertuko dira.

Edonola ere, urteko kontuen auditoretza egingo da, partzuergoa atxiki zaion administrazioaren kontrol organoaren ardurapean.

Atxikita dagoen administrazio publikoaren aurrekontuen parte izango da partzuergoa, eta administrazio horren kontu orokorrean sartuko da.

24. artikulua. Tarifak

Hornikuntza zerbitzuen goiko sareko tarifei dagokienez, honako hauek sartuko dira: lehen ezarpenaren finantza gastuak, hala zuzeneko nola zeharkako ustiapen, zaintza eta mantentze kostuak, etorkizuneko hedapenentarako erreserba bat sortzeko ezar daitezkeen kuotak eta kreditu propioetatik edo partzuergoko kide diren erakundeek ekarpenetatik eratorritako finantza gastuak.

Gastu horiek irizpide objektiboen arabera banatuko dira, uraren benetako kontsumoak baloratuz.

25. artikulua. Tarifak jartzeko irizpideak

Partzuergoak aplikatu beharreko tarifak ezartzeko honako irizpide edo printzipio hauek hartuko dira kontuan:

a) Nahikotasuna: zerbitzuari finantza autonomia emateko moduan kalkulatu da tarifen zenbatekoa.

b) Gehikortasuna: gehien kontsumitzen dutenek gehiago ordainduko dute.

c) Berdintasuna: zerbitzu bera jasotzen duten partzuergoko toki erakundeek tarifa berbera izango dute. Partzuergoko kide diren administrazio batzar guztiei tarifa berak aplikatuko zaizkie lehen mailako sarean neurtutako emarian.

d) Unitatea: aleko prezioa ezarriko da kontsumitzen den m³ bakoitzeko. Irizpideak berberak izango dira erakunde guztientzat.

26. artikulua. Tarifak ezartzea

Partzuergoaren helburuetako bat da tarifek zerbitzuaren kostua estaltzea. Horiek horrela, tarifak ezarri eta mailaz maila handitu ahal izango dira partzuergoak adosten duen egunetik aurrera. Lehen mailako sareko tarifak ezartzea partzuergoaren ardura da.

27. artikulua. Administrazio kudeaketako unitatea

1. Jarduteko printzipiotzat ezartzen da erabiltzailearekiko administrazio kudeaketako unitatea. Faktura edo ordainagiri bakarra ezarriko da. Hala, fakturako kontzeptuak banatu ahal izango dira, bakoitzari ematen zaizkion zerbitzuen arabera.

2. Ur horniduragatik partzuergoak erabiltzaileari aplikatu beharko dizkion tarifetan honako hau sartuko da: lehen mailako sareko horniduraren prezioa, banaketa gastuak eta tarifen gainerako kontzeptuak eta sarean izandako galerak barne.

3. Tarifa horiek administrazio batzarrek kobratuko dituzte, batzarrak ezartzen dituen epeetan. Harpidedunena partzuergoak hartu ahal izango du bere gain, administrazio batzar interesdunek hala eskatzen dutenean eta batzar orokorrak komenigarria dela erabakitzen duenean.

4. Arabako Foru Aldundiak, Partzuergoak hala eskatuta, baimena izango du zerga itunduetan parte hartzen duten toki erakundeei dagozkien ekarpenetatik dirua jasotzeko, berari dagozkion tarifak ordaintzeko, bai eta estatutu hauetako 23.2 artikuluaaren arabera ezinbestez egin beharko dituen ekarpenak egin ahal izateko.

28. artikulua. Mozkinak

Mozkinak ez dira inoiz banatuko partzuergoko kide diren erakundeen artean. Tarifak gutxiago igotzeko edota tarifak jaisteko erabiliko dira irabaziak edo gehikuntzetarako erreserba funtsak eratzeko.

4. KAPITULUA. ONDAREA**29. artikulua. Partzuergoaren ondarea**

1. Partzuergoko kide diren erakundeen partzuergoaren helburuetarako eskualdatutako ondasunek eta partzuergoak bere funtsekin eskuratutako ondasunek eratuko dute partzuergoaren ondarea.

2. Arabako Foru Aldundiak inbentario xehatua eta balioztatua egin ondoren, bertan jasotzen diren ondasunak eskualdatuko dizkio.

3. Partzuergoko kide diren toki erakundeen, aldiz, inbentario xehatua eta balioztatua egin ondoren, partzuergoari eskualdatuko dizkiote lehen mailako ur sareari erabat edo neurri batean lotuta dauden instalazio, baliabide material, proiektu eta bestelakoak.

4. Partzuergoak bere gain hartuko ditu eraketa unean hitzartutako kreditu eragiketak itzultzeko xedez sortzen diren urteko kuotak, bai eta erakundearen indarraldian hitzartzen direnak ere, horien helburua bada lehen mailako sarearen azpiegiturari dagozkion obrak finantzatzea.

5. KAPITULUA. LANGILEAK**30. artikulua. Langileak**

Partzuergoak bere xedeak lortzeko beharrezkotzat jotzen dituen lanpostu guztiak sortu ahal izango ditu. Langileak funtzionarioak edo lan kontratadunak izan daitezke.

Partzuergoen zerbitzurako langile berriak funtzionarioak edo langile lan kontratadunak izan ahal izango dira, eta parte hartzen duten administrazioetakoak baino ez dira izango. Atxikita dauden administrazio publikoaren araubide juridikoa izango dute, eta hango antzeko lanpostuentzat ezarritako ordainsariak ez dituzte inola ere gaindituko.

Salbuespenez, partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako langilerik ezin badu eduki bete beharreko eginkizunak bereziak direlako, partzuergoa atxikita dagoen administrazioaren organo eskudunak baimena eman ahal izango du partzuergoak langileak zuzenean kontratatzeko aipatutako eginkizun horietan aritu daitezen.

31. artikulua. Idazkaria

1. Partzuergoaren idazkariak egiteko hauek edukiko ditu:

a) Batzar orokorreko kidea izatea, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Batzar orokorraren egintza eta erabaki guztien fede emaila izatea.

c) Batzar orokorrari eta bere lehendakariari aholkuak ematea.

d) Partzuergoko posta eta agiri guztiak bideratu eta artxibatzea, aldezturik lehendakariak jakinda eta erabakita.

e) Toki araubidearen legeek idazkariarentzat ezartzen dituen eginkizunak egitea.

32. artikulua. Kontuhartzailea

1. Partzuergoko kontuhartzaileak kontabilitate eginkizunak, kudeaketa ekonomikoaren gaineko aholkularitza eta fiskalizazio lanak eta oro har toki araubideko xedapenak esleitzen dizkieten guztiak beteko ditu.

2. Partzuergoaren batzar orokorrak izendatzen du kontuhartzailea. Idazkaria bera izen daiteke.

6. KAPITULUA. KIDEAK SARTZEA ETA IRTETEA**33. artikulua. Kide berriak sartzea**

1. Partzuergoa eratutakoan partzuergoan sartu nahi duten udalek eta kontzejuek formalki egin beharko dute bertan sartzeko eskaera, partzuergoko lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez. Horrekin batera aurkeztu beharko dute udalbatzak edo kontzejuek horri buruz hartutako erabakia, legeak exijitutako formalitateak beteta.

2. Kide berriak onartzeko eskaerak jendaurrean jarriko dira, 15 egunez.

3. Ebazpena batzar orokorrak emango du gehiengo kalifikatuarekin, estatutu hauen 18.2 artikulua arabera, eta erakunde interesdunari jakinaraziko dio ofizialki, bai eta zenbat ordezkari dagozkion ere.

4. Partzuergoaren batzar orokorrak onartzen duen kide berriaren ekarpen ekonomikoa batzar orokorrak berak ezarriko du, eta zenbat ordezkari dagozkion ere berak finkatuko du. Horrez gainera, batzar orokorrak ezarriko du zein izango den partzuergoaren zerbitzuak mantentzeko gastu gisa kide berriak egin beharreko ohiko eta aldizkako ekarpena.

34. artikulua. Kideak irtetea

1. Partzuergoko kideak edozein unetan irtetaz ahal izango dira bertatik, udalbatzak edo eskudun den organoak behar den quorumarekin hala erabaki ondoren. Irtetaz beharko da udalerritik edo kontzeju batek zerbitzua emateari uzten diotenean.

2. Partzuergotik irteteko erabakia jendaurrean jarriko da 30 eguneko epean.

3. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desagitea eragingo du. Nolanahi ere, gainerako kideek, estatutu hauetan araututako betez, partzuergoa ez desagitea erabaki ahal izango dute, baldin eta gutxienez bi administrazio kide izaten jarraitzen badute, edota administrazio baten baino gehiagoren mendeko bi erakundek edo organismo publikok hala erabakitzen badute.

Partzuergotik irteteko eskubidea baliatzeak ez duenean partzuergoa desagitea eragiten, arau hauek aplikatuko dira:

a) Irteteko eskubidea baliatzen duenari zenbateko uzte kuota dagokion kalkulatu da. Horretarako, partzuergoa likidatuz gero legokiokkeen ondare garbiaren saldoaren partaidetza hartuko da aintzat, estatutuetan xedatutako banaketa irizpidea kontuan hartuta.

Likidazio kuotarik zehazten ez bada, honako hauek hartuko dira kontuan: irteteko eskubidea baliatu duenak partzuergoaren ondare funtsari egindako ekarpenen ehunekoa eta urtez urte emandako finantzaketa. Partzuergotik irteten den kideak ez badu ekarpenik egin, horretarako betebeharra ez zuelako, banaketa irizpidea hau izango da: partzuergoko kide izan den denboran jasotako diru sarreretan izandako partaidetza, halakorik jasoz gero.

Partzuergoak erabakiko du nola eta zer baldintzatan ordainduko den uzte kuota, kuotaren emaitza positiboa bada, bai eta uzteko eskubidea erabiltzen duenari dagokion zorra nola eta zer baldintzatan ordainduko den ere, kuotaren emaitza negatiboa bada.

Partzuergotik benetan irtengo da uzte kuotaren zenbatekoa erabaki eta gero, kuotaren emaitza positiboa bada, edota zorra ordaindu eta gero, kuotaren emaitza negatiboa bada.

b) Baldin eta partzuergoa, legean ezarritakoaren arabera, irteteko eskubidea erabili duen administrazioari atxikita badago, partzuergoak erabaki beharko du, partzuergoan geratzen direnen artean, zer administrazioari edo administrazio bati lotutako edo haren mendeko zer erakunde edo organismo publikori atxikiko zaion, legean ezarritako irizpideak betez.

4. Irtetea partzuergoko beste kide batzuek bultzatzen badute, ebazpena batzar orokorrak eman beharko du zuzenean, eta alde zuzenetik erakundeak ordura arte lagatutako ondarea itzuli beharko da, baldin eta horrek ez badu eragozten zerbitzua ematen jarraitzea. Horrela ez bada, itzuli ezin diren instalazioak ekonomikoki konpentsatuko dira, nahitaezko desjabetzearen araudiaren arabera.

7. KAPITULUA. PARTZUERGOKO KIDE EZ DIREN ERAKUNDEEI ZERBITZUA EMATEA

35. artikulua. Zerbitzua ematea partzuergoak ez diren erakundeei

Partzuergoak zerbitzuak egin ahal izango dizkie kide ez diren erakundeei, aukeran, beraiek eskatu eta batzar orokorrak egitea erabaki ondoren. Erabaki hori hartzeko, botoen bi herenen gehiengo kualifikatua beharko da. Erakunde eskatzaileak partzuergoak ezartzen dituen baldintzak bete beharko ditu eta hark onetsitako tarifak ordaindu beharko ditu.

8. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

36. artikulua. Diziiplina araubidea

Batzar orokorrak eskumena dauka diziiplina arautegia onartzeko, betiere estatutu hauen 18.2 artikuluan aurreikusitako bi herenen gehiengoarekin.

9. KAPITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA ETA PARTZUERGOA DESEGITEA

37. artikulua. Estatutuak aldatzea

1. Estatutuak aldatzeko proposamena interesa duen erakunde bakoitzak eta batzar orokorrak egin dezakete.

2. Aldaketarako proposamenaren barruan horretarako arrazoiak, aldatu edo gehitu beharreko arauen testua eta baliogabetzen direnen zerrenda sartu beharko dira.

3. Estatutuak aldatzeko aldeko botoa eman behar dute botoa emateko eskubidea duten batzar orokorreko legezko kideen bi herenek. Estatutuak aldatzeko erabakia horretarako deitutako bilkura berezian hartuko da.

4. Artikulu honen 3. puntuan adierazitakoaren salbuespen bakar gisa, egin nahi den estatutu aldaketa 13.2.a) artikulua idazketari buruzkoa baino ez bada, eta partzuergoan sartutako erakunde bakoitzari boto bat eman nahi bazaio, aldaketa hori egiteko nahikoa izango da gutxienez batzar orokorreko hiru kideren aldeko botoa.

5. Partzuergoan bildutako toki erakundeei horretarako bereziki deitutako bilkura berezian onetsiko dituzte aldaketak, baina erabaki hori ez hartzeak ez du eraginik izango partzuergoaren batzar orokorrak hartutako aldaketa erabakiaren balio eta efikazian.

6. Batzar orokorraren erabakiak artikulu honen 2. puntuan adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

38. artikulua. Desegitea

1. Partzuergoa desegiteko arrazoiak honako hauek dira:

a) Legeak hala xedatzea.

b) Partzuergoko kide diren erakunde guztiek komenigarritzat jotzea, betiere aldeztu aurretik batzar orokorrak hala erabakiz gero.

c) Partzuergoko kide diren erakundeek kopurua aldatzea, baldin eta horren ondorioz maila edo izaera bereko kideak bakarrik geratzen badira.

d) Hainbat egoerarengatik partzuergoak bere horretan jarraitzea interes publikoaren aurkakoa izatea.

2. Aipatutako arrazoiaren batengatik partzuergoa desegitea erabakiz gero, gutxienez kideen herenak horri buruzko proposamena eta txosten bat aurkeztuko dizkio batzar orokorrari, eta bertan azalduko dira desegitearen alde juridiko, ekonomiko eta teknikoak.

3. Batzar orokorrak desegiteko proposamena aztertuko du berariaz antolatutako aparteko bilkuran, eta erabakia hartzeko estatutu hauetako 18.2 artikuluan aipatzen den gehiengo kualifikatua beharko da.

39. artikulua. Likidazioa

1. Partzuergoa deseginez gero, erakundea likidatu eta azkendu egingo da. Nolanahi ere, partzuergoa zein xedetarako sortu zen, horiek bete izana desegiteko arrazoiak izango dira.

2. Partzuergoko gobernu organo gorenak, desegiteko erabakia hartzean, likidatzaile bat izendatuko du. Likidatzaile hori partzuergoa atxikita dagoen administrazio publikoari loturiko edo haren mendeko organo edo erakunde bat izango da.

3. Enplegatu publikoari erakunde edo organo likidatzaile bateko kide gisa dagokion erantzukizuna zuzenean bere gain hartuko du erakundeak edo hura izendatu zuen administrazio publikoak, eta hark ere enplegatu publikoari erantzukizuna eskatu ahal izango dio ofizioz dolo, erru edo zabarkeria larriaz jokatu badu, administrazio legeetan ondare erantzukizunari buruz xedatuta dagoenaren arabera.

4. Partzuergoko kide bakoitzari zer likidazio kuota dagokion kalkulatu du likidatzaileak estatutuetan ezarrita dagoenaren arabera.

5. Batzar orokorrak kuota hori kalkulatu du, likidazioaren ondoren ateratako ondare garbiaren saldoan dagokion partaidetzaren arabera, kontuan hartuz partzuergoko kide bakoitzak haren ondare funtsari egindako ekarpenen ehunekoa nahiz urtero emandako finantzaketa. Partzuergoko kideren batek ez badu ekarpenik egin, horretarako betebeharrak ez zuelako, banaketa irizpidea hau izango da: partzuergoko kide izan den denboran jasotako diru sarreretan izandako partaidetza, halakorik jasoz gero.

6. Partzuergoak erabakiko du nola eta zer baldintzatan ordaindu beharko den likidazio kuota, emaitza positiboa den kasuetan.

7. Partzuergoko erakundeek, aho batez edo estatutuen 18.2 artikuluko gehiengo kualifikatuaren bidez (aukeratu beharrekoa edo beste edozein gehiengo mota), erabaki ahal izango dute aktibo eta pasibo guztiak juridikoki egokia den sektore publikoko beste erakunde bati lagatzea, jarduerari eusteko eta azkendu den partzuergoaren helburuak betetzeko. Aktibo eta pasibo guztiak lagaz gero, partzuergo lagatzailea likidaziorik egin gabe azkendu da.

8. Partzuergoa deseginez gero, partzuergoko kide ziren erakundeek ekarpen moduan utzitako ondasun, instalazio eta eskubideak partzuergoaren helburuetarako izateari utziko diote eta erakunde horien eskuetara itzuliko dira, behar bezala justifikatutako arrazoi berezirik ez badago. Partzuergoaren gainerako ondareari dagokionez, batzar orokorrak partzuergoa desegitearen inguruan hartutako erabakian ezarritakoa bete beharko da.